



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos

BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ETXEA

2017ko
MEMORIA



Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen bidez (Aiete Jauregia) lan egiten du bake kultura hedatzeko, giza eskubideak sustatzeko eta oroimen historikoa berreskuratzeko. Betiere beste udal atal, erakunde, elkarte eta hainbat herritarrekin batera.

www.donostia.eus/gizaeskubideak



2017ko MEMORIA

GIZA ESKUBIDEAK, BAKEA ETA ELKARBIZITZA

OROIMEN HISTORIKOA

Formakuntza
Omenaldiak
Erakusketak
Hitzaldiak
Argitalpenak

Nazioarteko Egunak
Elkarteentzako diru-laguntzak
Zinema-proiektzioak

Sentsibilizazioa eta balioetan oinarritutako hezkuntza
Indarkeriaren biktimei aitortza eta babesa



GIZA ESKUBIDEAK, BAKEA ETA ELKARBIZITZA

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

- 07** "Nacido en Siria" emanaldi berezia
- 08** Aurkezpena
- 11** Kulturarako sarbidea
- 12** Palmaresa
- 13** Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria
- 14** Ikasleeentzako goizeko saioak
- 15** Gazte Epaimahaia
- 16** "Kolonbia, bake iheskorra" erakusketa
- 17** "Cuban Muslims, Tropical Faith" erakusketa
- 18** "Giza Eskubideen aldeko tirak" erakusketa
- 19** "Waste lands: Lur suntsituak" erakusketa

ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK HAUR ETA GAZTEEN XIII. EKITALDIA

- 24** Aurkezpena
- 27** Sari-banaketa

DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO IKASTAROAK


- 28** Aurkezpena
- 29** Hitzaldia: Antônio Augusto Cançado

NAZIOARTEKO EGUNAK ETA OROIPENAK

- 30** Holokaustoaren Memoriaren Europako Eguna
- 31** LGTBIQ askapen afektibo-sexualaren aldeko Nazioarteko Eguna
- 32** Oroimenaren Eguna
- 33** Haurren Egun Unibertsala
- 34** "Bizitzaren aldeko hiriak / Heriotza-zigorraren aurkako hiriak"
- 35** Hiesaren aurkako Munduko Eguna
- 36** Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna

DIRU-LAGUNTZAK

- 37** Elkarteei emandako diru-laguntzak



OROIMEN HISTORIKOA

BISITA GIDATUAK

39 Donostiako Oroimen Historikoaren ibilbidea

ERAKUSKETA

40 "Emeek Emana"

DONOSTIAN 1936tik 1945era GIZA ESKUBIDEEN URRAKETEI BURUZKO IKERKETA

42 Egia, justizia eta biktimeekiko aitortpena

OROIMENAREN BULEGOA

43 Informazioa emateko eta jasotzeko gunea

IBILBIDE ANTZEZTUAK

44 Oroimenaren bidea egiten Donostian zehar

DONOSTIAKO OROIMENAREN EGUNA

45 Irailak 13

A woman with dark hair, wearing a yellow and green patterned cardigan, sits in a wicker chair. She is looking slightly to her left with a thoughtful expression. The room is filled with vibrant, abstract art. To her left is a large painting of a face with yellow and blue tones. Behind her is a wall with red balloons and a shelf of books. To her right is another large painting of a woman with glasses and red hair, and a hanging beaded curtain. In the foreground, there is a round wicker table with a glass top. The overall atmosphere is warm and creative.

GIZA ESKUBIDEAK, BAKEA ETA ELKARBIZITZA

SENTSIBILIZAZIOA ETA
KONTZIENTZIAZIOA



GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

02/14

NACIDO EN SIRIA

emanaldi berezia

Donostiako Udalaren **Giza Eskubideen bulegoak** eta **Donostia Kulturak** antolatzen duen **Giza Eskubideen Zinemaldiak** Hernán Zin zuzendariaren ***Nacido en Siria*** (2016) dokumentalaren proiektzio berezia aurkeztu zuten, Antzoki Zaharrean.

Emanaldiaren ondoren solasaldi bat egin zen **CEAR – Euskadiko** (Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordea) **Rosabel Argote** eta **Javi Julio** fotokazetariarekin.

Goya sarietarako proposatutako dokumental honek oso harrera ona izan du proiektatu den hirietan, eta hedabide espezializatuek “ezinbestekotzat” hartu dute iheslarien errealitatea ezagutzeko, eta “*Europa lotsatuta utzi beharko lukeen dokumentala*” dela adierazi dute.



20.000 lagundik gora
programatutako jardueretan

GIZA ESKUBIDEAK,
BAKEA ETA ELKARBIZITZA

SENTSIBILIZAZIOA ETA
KONTZIENTZIAZIOA

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

03/31-04/07

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak eta Donostia Kulturak antolatutako Donostiako Giza Eskubideen 15. Zinemaldia, urtero bezala, Victoria Eugenia, Antzoki Zaharrean eta hiriko hainbat gune eta kultur etxetan egin zen. Publikoaren harrera beroa eta kritika onak jaso zituen berriro ere zinemaldiak.

20.000 lagun baino gehiagok parte hartu zuten programatutako jardueretan.

10.065 ikusle izan ziren zinema-emanaldietan: **5.513** Victoria Eugenia Antzokiko 20 saioetara hurbildu ziren, **4.113 ikasle** Antzoki Zaharreko goizeko 12 emanaldietara, **353** kultur etxeetan antolatutako 8 film saioetara eta beste **86** Tabakalerako proiektoria.

Zinemaldiak 6 erakusketa antolatu zituen: **"Emeek emana"**, Intxorta 1937 Kultur Elkartearekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, **"Giza Eskubideen aldeko tirak"** Fernando Buesa Fundazioarena, **"Kolonbia, bake iheskorra"**, Amnesty Internationalena, **"Artea eta Giza Eskubideak Haur eta Gazteen XIII. ekitaldia"**, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen bulegoarena, **"Cuban Muslims"**, **"Tropical Faith"**, Fnacekin batera, eta **"Waste Lands"**, San Telmo Museoarena. Hainbat erakusketak jarduera paraleloak eskaini zituzten, besteak beste, bisita gidatuak edota hitzaldiak.





20.000 lagundik gora
programatutako jardueretan

GIZA ESKUBIDEAK,
BAKEA ETA ELKARBIZITZA

SENTSIBILIZAZIOA ETA
KONTZIENTZIAZIOA



GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

03/31-04/07



Eneko Goia alkatea, Iñaki Hernando Amnesti Internationaleko ordezkaria, Miren Azkarate zinegotzia eta Josemi Beltrán jaialdiaren zine-programazio arduraduna.



20.000 lagundik gora
programatutako jardueretan

GIZA ESKUBIDEAK,
BAKEA ETA ELKARBIZITZA

SENTSIBILIZAZIOA ETA
KONTZIENTZIAZIOA

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

03/31-04/07



Victoria Eugenia Antzokia, Zinema eta Giza Eskubideen Zinemaldiko egoitza.

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

03/31-04/07

Kulturarako sarbidea

Zinemaldiak irisgarritasunaren aldeko apustua egiten jarraitzen du. Izan ere, solasaldietan zeinu hizkuntza zerbitzua eskaintzen da eta pelikula gehienek pertsona gorrentzako azpititulu irisgarriak dituzte. Horrez gain, itsuentzako edo ikusmen urritasuna duten pertsonentzako audio-deskribapena duten emanaldiak eskaintzen dira.

Horrenbestez, kulturarako sarbidea izateko zailtasun handiagoa duten talde eta lagunengana iristeko ahaleginak egiten dira.

Horrez gain, Giza Eskubideen Zinemaldiak programazioa Donostiako espetxera (Martutene) zabaltzen du. Horrela, Giovannii Pellegriniren *Bring the sun home* filma proiektzioaren ostean, presoek Juanmi Gutierrez zuzendariarekin solasaldia izan zuten.



Zine-saio berezia, Donostiako kartzelan.



Sari-banaketa, Eneko Goia alkatea eta Deepa Metha zinemagilea bertan zirela.

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

03/31-04/07

Palmaresa

The Eagle Huntress (Otto Bell; AEB, 2016) filmak Ikusleen Saria irabazi zuen. Tradizioa eta emakumeen ahalduntzea da filma honen gaia.

Maisie Crow-en ***Jackson*** (AEB, 2016) filmak irabazi zuen Amnesty International erakundeak banatzen duen Film Onenari Saria. Pelikulak AEBn dauden abortatzeko oztopoak erakusten ditu.

Katja Benrath zuzendariaren ***Watu Wote*** (Alemania, 2016) film laburrak Gazte Epaimahaiak ematen duen Film Labur Onenari Saria jaso zuen, 3000 euroko ordainsaria duena. Fanatismo erlijiosoa eta, aldi berean, elkartasuna islatzen ditu.



GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

03/31-04/07

Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria

Eneko Goia alkateak **Deepa Mehta** indiar zinemagileari eman zion **Donostiako Giza Eskubideen 15. Zinemaldiaren Saria**, itxiera-emanaldian.

Zinemaldiaren antolatzaileek Deepa Mehtari eman zioten saria bere ibilbidea aintzat hartuta. Zinemari eskainitako azken 30 urteetan izaera sozialeko gai ugari jorratzeagatik nabarmendu da Mehta, gehienetan bere jaioterriari lotuak. Horrela, Indiak eta emakumeek lehentasunezko lekua dute bere zinean. Itunpeko ezkontzak, migrazioa, emakume indiarren egoera, genero indarkeria... bere filmografian zehar ageri diren gaiak dira.



Eneko Goia alkatea eta Deepa Mehta.

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

03/31-04/07

Ikasleentzako goizeko saioak

6 eta 18 urte bitarteko 4.000 ikasletik gora parte hartu zuten hiriko ikastetxeei zuzendutako goizeko emanaldietan, Giza Eskubideen Zinemaldiaren baitan.

Agurtzane Intxaurrearen **Teresa eta Galtzagorri**, Mark Osborneren **Printze Txikia** eta Claude Barrasen **Ma vie de courgette** izan ziren proiektatutako filmak. Hiru pelikulak Ikertzek egindako gida didaktiko batez osatzen dira. Filmak ikusi aurretik eta ondoren ikasgelan lantzeko.

Saio horien helburua da giza eskubideak oinarritzat dituzten gaiak lantzea. Horrela, haur eta gazteen artean hainbat balioren inguruko sentsibilizazio eta kontzientziazioa lantzeko aukera bikaina ematen dute, betiere hezitzaileen laguntzarekin.





GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

03/31-04/07

Gazte Epaimahaia

18 eta 30 urte bitarteko 100 gaztetik gora parte hartu zuten zinemaldiaren Gazte Epaimahaian. Euren botoez, beraiek erabakitzen dute 3.000 euroko Film Labor Onenaren Saria zein filmak jasoko duen. Gazteek, pelikulen giza eskubideekiko sentiberatasuna zein filmaren kalitatea balioesten dituzte.

Donostiako (Martutene) espetxeko hainbat presok ere parte hartu zuten Gazte Epaimahaian. Gainera, epaimahaikideen artean bi bidaia zozkatzen dira, *FiSahara*, Saharako Dajla errefuxiatuen kanpamentuan egiten den zinemaldia, ezagutzeko. Zinemaldi horrek Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiarekin senidetze akordioa du.



GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

03/31-04/07

KOLONBIA, BAKE IHESKORRA erakusketa

Erakusketan, Giza Eskubideen Zinemaldiaren laguntzaile den Amnesty Internationalek ekoitzia, Kolonbian mende erditik gorako tartean izandako gatazkaren zeharreko ibilbidea egiten da.

Alderdi Ederreko Liburutegi Nagusian ikusgai egon zen.

Erakusketaren izenak, “Kolonbia, Bake iheskorra” aditzera eman nahi du orain bakeaz hitz egiten bada ere, bake hori iheskor agertuko dela, egia, justizia, kalteen ordaina eta giza eskubideekiko errespetua ez dagoen bitartean.

Hona hemen erakusketan Kolonbiako liskarraren inguruan dokumentatzen diren datuetako batzuk: 265.000 hildako, 6 milioi lekualdatu, desagergen behartuen 45.000 biktima... Gehien gehienak zibilak eta ia erdia emakumeak.



Joan Alvado.

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

03/16-04/25

CUBAN MUSLIMS, TROPICAL FAITH erakusketa

Joan Alvado, 2016ko Fnac Argazkilaritzako Talentu Berriaren erakusketa, Kubako islamiar komunitatearen ingurukoa.

Kuba daislama sartu den munduko azken herrialdeetako bat. Ezagutzen ez dugun gertaera bada ere, azken urteotan handitzen doa erlijio horretara bihurtzen ari diren bertako biztanleen kopurua.

3.000 lagun inguru dira gaur egun, eta Habanako hainbat distritutan daude, baina baita beste probintzia askotan ere: Camagüey, Santiago edo Varadero, besteak beste.



GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

03/14-04/23

GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO TIRAK erakusketa

Aiete Kultur Etxeak **Fernando Buesa Fundazioak** ekoiztako bineten nazioarteko erakusketa hartu zuen areto nagusian. Erakusketak 1948an onartutako Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 30 artikulua irudikatzen dituzten binetak biltzen ditu.

Fundazioak berak antolatutako nazioarteko lehiaketa batetik aukeratutako bineta sorta da hemen erakutsi zena. 50etik gora herrialdek parte hartu zuten ekimen hartan.

Horrez gain, **Museo birtuala** ere eskaintzen du erakustaldiak. Horrela, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeko egongeletan binetak ikusteko aukera izan zen.



GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

03/04-05/21

WASTE LANDS: LUR SUNTSITUAK

erakusketa

Konpondu gabeko eta agerian ez dauden krisiak analizatzea helburu duen erakusketa garaikidea ikusgai egon zen San Telmo Museoa.

Piedad Solanes izan zen erakusketaren komisarioa eta honetan hamahiru emakume artisten lanak biltzen dira: Lida Abdul, Tamara Abdul Hadi, Zoulikha Bouabdellah, Amina Benbouchta, Gohar Dashti, Rena Effendi, Yara El-Sherbini, Mariam Ghani, Kinda Hassan, Larissa Sansour, Parastou Forouhar, Elnaz Javani y Raeda Saadeh. Afganistan, Aljeria, Azerbaijan, Egipto, Arabiar Emirerri Batuak, Iran, Libano, Maroko eta Palestinakoak dira emakume artistak.

Erakusketarekin batera, hainbat jarduera paralelo antolatu zituzten, artistak hobeto ezagutu eta erakusten diren gatazketan sakontzeko asmoz.



20.000 lagundik gora
programatutako jardueretan

GIZA ESKUBIDEAK,
BAKEA ETA ELKARBIZITZA

SENTSIBILIZAZIOA ETA
KONTZIENTZIAZIOA

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

03/31-04/07





20.000 lagundik gora
programatutako jardueretan

GIZA ESKUBIDEAK,
BAKEA ETA ELKARBIZITZA

SENTSIBILIZAZIOA ETA
KONTZIENTZIAZIOA

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA 03/31-04/07



José Zuazua (Donostiako S.E.A.D. lagunen elkartekoa), Fernando Vaquerizo (Mundubatekoa), Erika Erkizia (Euskadiko GKE Koordinatzailekoa) eta Izaskun Arandia (H) emen elkartekoa.



Lore Uranga, Ama, nora goaz? dokumentalaren protagonista, Juan Ramón Viles Giza Eskubide zinegotzia eta filmeko ordezkariekin batera.



20.000 lagundik gora
programatutako jardueretan

GIZA ESKUBIDEAK,
BAKEA ETA ELKARBIZITZA

SENTSIBILIZAZIOA ETA
KONTZIENTZIAZIOA

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA 03/31-04/07



La mano invisibleko zuzendaria, David Macián, eta taldeko kideak.



Kultur etxeetako zikloko saioetako bat.



20.000 lagundik gora
programatutako jardueretan

GIZA ESKUBIDEAK,
BAKEA ETA ELKARBIZITZA

SENTSIBILIZAZIOA ETA
KONTZIENTZIAZIOA

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

03/31-04/07



Aquí es posible Comunicación S.L. laburmetraiaren taldeko kideak.



Goran Paskaljevic, Land of the Gods filma aurkezten.

ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK HAUR ETA GAZTEEN XIII. EKITALDIA

03/31-04/30

1.500 haur eta gaztetik gora gogoeta egin eta irudietan jarri zituzten gizakien pribatutasun eta intimitaterako eskubidearen eta errespetuaren inguruko ideiak eta inpresioak, Artea eta Giza Eskubideak Haur eta Gazteen XIII. edizioan.

Guztira 2.969 obra aurkeztu zituzten Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 18 ikastetxek, 7 haurtxokok, 6 gaztelekuk, 4 arte akademiak, 3 elkartek, Saharako haur batek eta bere gisa parte hartu duten beste 9 lagunek.

Lan guztiak Victoria Eugenia antzokiko erakusketa aretoan ikusi ahal izan ziren, martxoaren 31tik apirilaren 30era bitartean.



1.500 haur eta gaztetik gora
euren gogoetak eta ideiak irudikatu zituzten





1.500 haur eta gaztetik gora
euren gogoetak eta ideiak irudikatu zituzten

**GIZA ESKUBIDEAK,
BAKEA ETA ELKARBIZITZA**

SENTSIBILIZAZIOA ETA
KONTZIENTZIAZIOA

ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK HAUR ETA GAZTEEN XIII. EKITALDIA

03/31-04/30



Artea eta Giza Eskubideak XIII. edizioaren erakusketa, Victoria Eugenia Antzokian.



1.500 haur eta gaztetik gora
euren gogoetak eta ideiak irudikatu zituzten

**GIZA ESKUBIDEAK,
BAKEA ETA ELKARBIZITZA**

**SENTSIBILIZAZIOA ETA
KONTZIENTZIAZIOA**

ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK HAUR ETA GAZTEEN XIII. EKITALDIA

04/31-04/30



Marrakzi erakusketako muralak.



ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK HAUR ETA GAZTEEN XIII. EKITALDIA

03/31-04/30

Sari-banaketa

Juan Ramón Viles Lehendakaritza, Gardentasuna, Giza Baliabideak eta Berrikuntzako zinegotzi ordezkariak eta epaimahaiko kide diren Xabier Baztarrika pintore eta irakasleak, Elena Odriozola ipuin ilustratzaileak, eta Ricardo Ramonek, Dibulitooneko animazio filmen produktoreak banatu zituzten sariak, apirilaren 30ean, Donostiako Udaletxeko Udalbatza aretoan.

DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO IKASTAROAK 2017/11-2018/04

Duela 20 urtez geroztik, Donostiako Udalak eta EHUKo Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Sailak, Francisco de Vitoria Euskal Herriko Nazioarteko Ikasketen Institutuarekin batera, Euskal Herriko Unibertsitatean ematen diren Giza Eskubideen aldeko ikastaroak antolatzen dituzte.

Horrez gain, parte hartzaileen txostenak jasotzen dituen urtekaria ematen da argitara, eta hiru beka ematen dira ikasleek Estrasburgoko René Cassin Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuaren Urteroko Irakaskuntza Saioan parte har dezaten.

XXI. edizioan (azaroa eta apirila bitartean) parte hartuko duten adituek nazioartean gaurkotasan handia duten gaiak jorratuko dituzte, esaterako, immigrazioa eta Europako mugak; giza eskubideak eta atzerriko inbertsioak; giza eskubideen bortxaketa larrien aurrean estatu buruek duten immunitatea; asilo-eskubidea sexu orientazio eta genero identitateagatik edo mendebaldeko Sahararen gatazka.





DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO IKASTAROAK

03/27

Antônio Augusto Cançadoren hitzaldia

Antônio Augusto Cançado Trindade, Giza Eskubideen Inter-Amerikar Auzitegiko lehendakari ohiak eta gaur egun Nazioarteko Justizia Auzitegiko magistratuak, giza eskubideen nazioarteko babesari buruzko hitzaldia eman zuen Donostiako udaletxeko Udalbatza aretoan.

Hitzaldiak, "Nazioarteko jurisprudentzia giza eskubideen arloan" titulupean, itxiera eman zion Donostiako Giza Eskubideen Ikastaroen XX. edizioari.

Cançado epaile Brasildarra giza eskubideen defentsa progresista egiteagatik ezaguna da. Iritzi berezi eta disidenteak agertu ditu bere epaietan. Eredu juridikoan giza eskubideen defentsan aritzen diren artean aditu entzutetsuenetakoa da.



NAZIOARTEKO EGUNAK ETA OROIPENAK

01/27

Erakunde adierazpena Holokaustoaren Memoriaren Europako Egunean

Donostiako Udalbatzak, urtarrilaren 27an, erakunde adierazpena onartu zuen Holokaustoren Memoriaren Europako Eguna eta Holokaustoaren Memoriaren eta Gizateriaren kontrako Krimenak Prebenitzeko Nazioarteko Eguna zirela-eta.

Adierazpenean, talde politiko guztiek nazien jazarpena pairatu zuten pertsonak omendu nahi izan zituzten, eta bereziki tragedia hori sufritu zuten 21 donostiarrak. *"Beren esperientzia pertsonalak gure oroimen kolektiboaren parte izan behar dute"*, jasotzen du dokumentuak.

Honako hau azpimarratzen da adierazpenean, *"pertsona guztiok ditugun eskubide hauek etsi gabe babestu eta bermatu nahi ditugu: norberaren erlijio-sinesmenak praktikatzea; norberaren ideia politikak defendatu eta adieraztea; norberaren jatorri etniko nahiz kulturala gorabehera, errespetatuak izatea; sexu-askatasuna izatea. Aldarrikatzen dugun beste eskubide garrantzitsu bat da aipatutako garai historikoan pairatutako sufrimenduak eta jazarpenak ukatu nahiz guztiz edo aldeztu minimizatu nahi dituzten baieztapen edo adierazpen guztiak ukatzea"*.



NAZIOARTEKO EGUNAK ETA OROIPENAK

06/28

LGTBIQ askapen afektibo-sexualaren aldeko Nazioarteko Eguna

Donostiako Udalak bat egin zuen, aurten ere, ekainaren 28an, Transexualen, Bisexualen, Lesbianen, Gayen, Intersexualen eta Queer-en askapen afektibo-sexualaren aldeko Nazioarteko Egunean.

Egun horretan, eta baita bezperan ere, Udaletxeko fatxada kolore anitzez argiztatu eta ostadar koloreko bandera zintzilikatu zuten.

Era berean, Kursaal eraikina LGTBIQ borrokaren irudia den banderaren koloreekin argiztatu zen.

Bestalde, Dbuseko eta Lurraldebusen autobusek kartelak eta bideoak jarri zituzten nazioarteko egun hori oroitzeko.



NAZIOARTEKO EGUNAK ETA OROIPENAK

11/10

Oroimenaren Eguna

Donostiako Udalak omenaldia egin zien terrorismoaren eta bortizkeriaren biktimei, Oroimenaren Eguna zela eta. Ekitaldia biktimak omentzeko Alderdi Ederren dagoen monolitoan izan zen. Bertan, udal korporazioa osoak parte hartu zuen; minutu batzuk isilean pasatu ostean, lore-eskaintza egin zuten.

Donostiako alkatearen esanetan: *"terrorismoaren eta bortizkeriaren biktimak urteko 365 egunetan gogora ekartzen ditugu, eta bereziki gaurko egunean, Memoriaren egunean. Udal korporazioa osoak eskaini die omenaldia, eta hori nabarmendu nahi dut".*





"Wangari Maathai eta Bakerako Zuhaitzak" erakusketaren kartela.

NAZIOARTEKO EGUNAK ETA OROIPENAK

11/20

Haurren Egun Unibertsala

Donostiako Udalak, Giza Eskubideen, Kultur Aniztasunaren eta Gazteria bulegoen bitartez, eta Unicef, Literaktum txiki eta Donostia Kulturaren laguntzarekin, haurrak, gazteak eta familiak gonbidatu zituen klima aldaketaren ondorioz milaka pertsonen bizi duten errealitate aldaketa ezagutzera, Haurren Egun Unibertsala zela eta.

Helburu honekin, Dar Dar kooperatibak **"HAREA"** ikuskizuna sortu zuen, festa giroan naturaz eta aniztasunaz gozatzeko, Aiete Kultur Etxean. Kultur etxean bertan **"Wangari Maathai eta Bakerako Zuhaitzak"** Nobel Sariaren inguruko erakusketa izan zen ikusgai, Aitziber Alonsoren marrazkiez osatuta.

Horrez gain, hiriko **Haurtxoko** eta **Gazteleku** guztietan hainbat ekintzetan parte hartzeko aukera izan zen. Horien artean, liburu bat argitaratu zuten, "Ahotsak planetaren alde" eta "Helburua: etorkizun jasangarria" jarduerak proposatzen zituen.

Udal Liburutegietan, berriz, Ipuinaren orduak haurren eskubideak izan zituen protagonista.



NAZIOARTEKO EGUNAK ETA OROIPENAK

11/30

“Bizitzaren aldeko hiriak / Heriotza-zigorraren aurkako hiriak”

Donostiako hiriak bere atxikimendua berretsi zuen Sant’Egidio Komunitatearen, Amnesty International-en elkarnean, “Biziaren aldeko hiriak / Heriotza-zigorraren aurkako hiriak” nazioarteko ekimena. Azaroaren 30ean, 15 urtez, oroitzen dute.

Hori zela eta, Donostiako Udaletxearen aurrealdea kolore gorritz argiztatu zen, heriotza-zigorraren indargabetzea aldarrikatzeko.

Mundu osoko 2.000 hiri baino gehiagok, besteak beste, Berlin, Amsterdam, Erroma, Ginebra, Paris edo Nairobik, eraikinak argiztatuko dituzte heriotza-zigorra gaitzesteko. Estatuan 25 hiriburu baino gehiago izan dira ekimen honekin bat egin dutenak.



Udal Dantza eta Musika Eskolako ikasleen emanaldia.

NAZIOARTEKO EGUNAK ETA OROIPENAK


12/01

Hiesaren aurkako Munduko Eguna

Donostiako Udalak, Giza Eskubideen atalaren bitartez, hainbat ekintza antolatu zituen Acasgi, Ehgam, Gehitu eta Harribeltza elkarteekin batera, hiesaren aurkako Munduko Egunaren harira.

Kursaaleko argia piztu zen begizta gorria irudikatuz, eta Udaletxea gorriz ere argiztatu zen. Gainera, begizta gorriak dituzten kartelak jarri ziren Udaletxeko fatxadan, udal ekipamenduetan eta hainbat garraio publikotan.

Horrez gain, elkarretaratzea egin zen, Kalkutako Teresa plazan, hiesaren memorialaren ondoan. HIESaren aurkako taldeek prestatutako jakinarazpenaren irakurketa egin zen eta Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolak ere parte hartu zuen dantza emanaldi bat eskainiz.



NAZIOARTEKO EGUNAK ETA OROIPENAK

12/10

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna zela eta, Donostiako Udalak Carlos Martínez mimoaren emanaldia antolatu zuen. “Giza Eskubideak” ikuskizuna. Antzoki Zaharrean.

Mimoak NBEk 1948an onartutako Giza Eskubideen Aldarrikapenaren artikuluetan oinarritutako ikuskizuna aurkeztu zien ikusleei, lilura eta isiltasunaren poesia erabiliz.

“Giza Eskubideak” antzezlanak ikusleak hunkitu nahi ditu eta, bereziki, Giza Eskubideen enuntziatuen inguruan eta haiek betetzen ote diren hausnartzea nahi du.



DIRU-LAGUNTZAK

Donostiako Udalak 50.300 euroko diru laguntza banatu zuen 25 elkarteren artean. Laguntza horien helburua da bizikidetza, giza eskubideak eta ezberdintasunaren aldeko errespetua sustatzea eta memoria historikoa berreskuratzeko lanetan diharduten gizarte eragileek ekimenak eta proiektuak babestea.





OROIMEN HISTORIKOA

Formakuntza
Omenaldiak
Erakusketak
Hitzaldiak
Argitalpenak
Nazioarteko Egunak
Elkarteentzako diru-laguntzak
Zinema-proiektzioak
Sentsibilizazioa eta balioetan oinarritutako hezkuntza
Indarkeriaren biktimei aitortza eta babesa



DONOSTIAKO OROIMEN HISTORIKOAREN IBILBIDEA

Urtarriletik ekainera

Donostiako Udalak iaz ere “Donostiako oroimen historikoaren ibilbidea” bisita gidatuak antolatu zituen, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduak. Bisita gidatuetan 1936ko Estatu kolpeak eragindako Gerra Zibilean eta, ondoren, diktadura frankistan gertatutakoa ezagutzera ematen da.

Gerra garaiko leku esanguratsuetara egindako bisita gidatuak gida didaktikoarekin osatzen dira, ikasleek ikasgelan oroimen historikoa lantzeko.

Lehenengoz ibilbideak ingelesez ere egiteko aukera izan zen, euskaraz eta gaztelaniaz gain.

Guztira 1.302 pertsonen parte hartu zuten bisita hauetan, hainbat eskola, euskaltegi eta formakuntza profesional zentrotik etorrira.



“EMEEK EMANA” ERAKUSKETA

03/23-05/07

1936ko Estatu kolpean, gerran eta ondorengo diktaduraren testuinguruan emakumeen ikuspegia eta beraiek izan zuten zeregin aktiboa jaso eta gizarteratzea dira “Emeek emana” argazki erakusketaren helburu nagusiak.

Ekimena Giza Eskubideen Zinemaldiaren barruan inauguratu zen, Aiete Kultur Etxean Intxorta 1937 Kultur Elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean egindako emakumeen oroimen historikoa berreskuratzeko proiektuaren ondorioa da.

Erakusketa osatzen dute Mauro Sarabia argazkilariak egindako emakume horien argazkiek, bakoitzaren bizipenak eta ikuspegiaren berri ematen duten bideoek eta hauen ibilbidea laburtzen duen katalogoak.





Markel Olano ahaldun nagusiak erakusketako protagonistetako bati oroigarria eman zion.

“EMEEK EMANA” ERAKUSKETA

03/23-05/07

Irekiera

Irekieran omenaldi xume bat egin zitzairen erakusketaren protagonista diren eta Euskal Herritik nahiz atzerritik etorritako hainbat emakumeri. Beraiekin batera, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Pilar Arana Donostiako Udaleko Mugikortasuneko eta Garraioko zinegotzi ordezkariak bisita gidatua egin zuten esposizioan zehar.



1936tik 1945era DONOSTIAN IZAN ZIREN GIZA ESKUBIDEEN URRAKETEI BURUZKO IKERKETA

05/30

Donostiako Udalak 17.996,21 euroko diru laguntza eman zion Aranzadi Zientzia Elkarteari, hain zuzen, tokiko informazio iturrien bidez gauzatzeko “1936tik 1945era Donostian izan ziren giza eskubideen urraketei buruzko ikerketa” proiektuari. Azterlanaren behin betiko emaitzak 2019an aurkeztuko dituzte.

Proiektuaren helburu nagusia da aurkitzea Donostian jaio edota bizi izan ziren pertsona guztiak, bai eta Donostian jaio edo bizi izandakoak ez izan arren, 1936tik 1945era Donostian giza eskubideen urraketaen bat nozitu zutenak ere.

Eneko Goia Donostiako alkateak ekimen honen aurkezpenean nabarmendu zuenez, *“egiaz zer gertatu zen bilatzea eta zabaltzea, oroimen kolektiboan txertatu ahal izateko, eta gerraren eta diktaduraren izugarrikeriak nozitu zituztenei justizia egitea eta erreparazioa ematea konpromiso utzienak dira edozein erakunde demokratikorentzat”*.

Eneko Goiarekin batera, Juantxo Agirre Mauleon Aranzadi Zientzia Elkarteko idazkari nagusiak eta Javi Buces historialariak eman zuten proiektu horren berri.



OROIMENAREN BULEGOA

10/18

Donostiako Udalak, Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzarekin, Oroimen Historikoaren Bulegoa sortu du. Gune horretan, herritarrek, doan, Donostian 1936tik 1945era errepresaliatutako senitartekoen edo pertsonen datuak eskatu ahal izango dituzte, baita horri buruzko informazioa eman ere.

Ekimen hori 1936tik 1945era Donostian izan ziren giza eskubideen urraketei buruzko lkerketaren baitan dago.

Bulegoa Aranzadi Elkartek Zorroagan duen egoitzan dago kokatuta. Hala ere, interesduna ezin bada Aranzadiren egoitzara hurbildu, Aranzadiko langileak joango dira pertsona horren bizilekura, hark hala eskatuz gero.



OROIMENAREN BIDEA EGITEN IBILBIDE ANTZEZTUAK

Iraila

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen bulegoak beste urte batez eskaini zituen ibilbide antzeztuak hirian zehar, duela 81 urte matxinatu ziren tropak eta Donostia hartu zuten unearen urteurrena gogorarazteko.

Guztira, 143 lagunek parte hartu zuten. 45ek euskaraz, eta 89k gaztelaniaz.



DONOSTIAKO OROIMENAREN EGUNA

09/13

Donostiako Udalak omenaldia egin zien 1936ko Estatu kolpe frankistaren ondoren askatasun demokratikoak babestu zituztenei.

Alkatea buru, Udalbatzak ekitaldia egin zuen frankismoaren biktimak oroitzen dituen Dual eskulturaren aurrean, indar kolpistek Donostia hartu zutenetik 81 urte betetzen zen egun berean.

Udaletxeko talde politikoekin batera, Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Batzar Nagusietako ordezkariak, oroimenaren aldeko elkarteak eta frankismoaren biktimen senitartekoak parte hartu zuten.

Arratsaldean "Ilunpetik argitara" antzezlanaren eman zen Udalbatzan. Ikuskizunak diktadura jasan izan behar zuten hainbat lagunentzako testigantza jasotzen du, modu artistikoan.





DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea

Aieteko Jauregia

Aiete Pasealekua, 65, 20009 Donostia

943 48 19 75

giza_eskubideak@donostia.eus

www.donostia.eus/gizaeskubideak